

4. BEZEROEKIN HARREMANAK

Gure enpresak gure bezeroei konfiantza transmititu behar diela ikusita, haiekin dugun tratua ezin hobea izan behar du, izan ere, esperientzia berri bat hastera doaz eta etxebizitza eroso izan behar du. Hori dela eta, hainbat aukera ditugu haiekin erreztasunez komunikatzeko, adibidez, posta elektronikoa, telefonoa edo WhatsApp.

Etxe berri batean bizitzea esperientzia berria dela ikusita, gure esku dagoen guztia egingo dugu gure pisuetan egonaldia paregabea izan dadin.

Horrez gain, badakigu hori gastu handia izan daitekela askorentzako, beraz, ordainketa modu desberdinetan egitea eskaintzen dugu. Lehenengo proposamena dena epe berean ordaintzea da baina badakigu aukera hau ez dela denentzat erraza, beraz, beste aukera bat dugu zatika ordaintzea, hau da, hilero edo 3 hilabetero bezeroak diru kopuru bat ordaintzea. Horrela, askorentzat eskuragarri izan daiteken enpresa bat sortzea lortuko dugu. Gainera, deskontu txartel bat eskaintzen dugu. Txartel honek ez du guztientzat balio, izan ere ezaugarri batzuk bete behar dituzte.

Gure deskontuak lortzeko gauza desberdinak egin daitezke. Gure pixuetan 6 hilabete baino gehiago egoten direnei 6 hilabeteetara %5eko deskontua egiten zaie eta beste lagunei gure enpresari buruz hitz egiten badiete bezero berriak lortzen laguntzeko %10eko deskontua aplikatuko zaie.

Pisua ordaintzeaz aparte, elektrizitatea, gasa, ura... bezeroaren esku utziko dugu, hau da bakoitzak pisuak balio duena ordainduko du eta beste guztia aparte ordaindu beharko du. Garbiketa berriz, pisuaren prezioaren barne dago. Aste bakoitzean norbait joango da pixua garbitzera, horrela pisu garbi eta txukun bat edukitzea lortuko dute eta ez dute bere denbora horretan inbertitu beharko. Ideia zoragarria dela pentsatzen dugu, izan ere gazteen gurasoak garbiketaren gaitik ez dira kezkatu beharko.

Bukatzeko, bezeroekin harremanetan jartzea gustoko dugu gure lana hobekien egiteko eta beraiek kezkarik ez edukitzeko.